AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

1388

AGINDUA, 2013ko martxoaren 7koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Bizkaiko Ikuskaritzako lurralde buruaren lanpostua aukerako izendapenez betetzeko deialdia ebazten duena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 46.2.c) artikuluan eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailean hutsik dagoen lanpostu bat aukerako izendapenez betetzeko deialdia iragartzen duen sail horretako sailburuaren 2013ko otsailaren 5eko Aginduaren laugarren oinarrian xedatutakoaren arabera (2013ko otsailaren 15eko EHAA), honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Begoña Manzarbeitia Manzarbeitia andrea Bizkaiko Ikuskaritzako lurralde buru izendatzea.

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean izango ditu ondorio ekonomikoak eta administratiboak izendapenak.

Hirugarrena.– Agindu honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegiaren aurrean, bi hilabeteko epean. Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da errekurtsoak aurkezteko epea.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko martxoaren 7a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.